

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn GARBITZAILE-ERREGAI HORNITZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA FASEAREN BEHIN-BETIKO EMAITZA.**
- **MERITUEN BALORAZIOAREN BEHIN-BETIKO EMAITZA (EUSKARA EGIAZTATZEA barne).**
- **BEHIN-BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA.**

Alegazioak aurkezteko epea bukatu ondoren eta haiek aztertu ondoren, Langileak Hautatzeko Batzordeak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Ondorengo behin-betiko emaitzak onartzea:

- Elkarriketa eta Analisi Pertsona Fasea (1.ERANSKINA).
Deialdiaren oinarriek adierazten duten bezala, fase hau gainditzeko gutxieneko puntuazioa 13koa da ebaluatutako 25 puntuetatik.
- Merituen Balorazioa (Euskara Egiaztatzea barne)) (2.ERANSKINA).

Interesatuekin kontaktatuko da haien eskaerari erantzuna emanaz, onartzeko eskaeran adierazitako posta elektronikoaren bidez.

Bigarren.- Garbitzaile-Erregai Hornitzearen Lan Poltsa osatzeko Deialdian onar daitezkeen hautagaien behin-betiko Azken Kalifikazioa ematen da argitara. Hautaketa prozesuak dituen Fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen batura da azken kalifikazio hori, Merituen Balorazioa barne (3.ERANSKINA).

Hirugarren.- Lan Poltsan sartzeari, osatzeari eta kudeatzeari buruzko informazioa (Kanpo Deialdia).

Gogora ekartzen da Garbitzaile-Erregai Hornitzailearen Lan Poltsa osatzeko Deialdiko hamargarren oinarrian adierazitakoa:

Hautaketa Prozesuak amaitutakoan, Langileak Hautatzeko Batzordeak www.dbus.eus webgunean eta Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan argitaratuko du Lan Poltsan onar daitezkeen hautagaien zerrenda.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesuko fase eta merezimenduen balorazio bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen baturak osatuko du, eta horrek zehaztuko du lan-poltsaren lehentasun-ordena.

Puntuazioa berdina bada, lanpostuan ordezkari txikiena duen sexuak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, euskara-maila handiena egiaztatuta duen hautagaiak izango du lehentasuna, hala badagokio.

Donostiako Tranbia Konpainia SAK kudeatuko du Garbitzaile-Erregai Hornitzeilearen Lan Poltsa, Elbarriak Gizarteratzeko Legeak definitzen dituen kupo-irizpideen arabera. Beraz, DTKk dituen zerbitzu-beharren arabera, desgaitasuna duten pertsonak lehentasuna izan ahal izango dute deialdia egiteko.

Lan poltsan sartutako hautagaietako bati dagokion lanpostuan hasteko deia egiten zaionean, osasun azterketa egin beharko zaio, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, bigarren oinarrian adierazi bezala. Lanpostuan hasi behar duen pertsona bakoitzari proba hauek egingo zaizkio, besteak beste: odol eta gernu analisiak, bihotz-biriketako miaketa (EKG), sabelaldeko miaketa, bizkarrezurraren azterketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumen azterketa eta anamnesia.

Hala ere, DTKk bere esku du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Lan poltsan sartutako hautagai batek proba horiek gainditzen ez baditu, hau da, lan poltsaren xede diren lanpostuei dagozkien eginkizunak betetzea eragozten duen edozein kasu gertatzen bada, lan poltsatik kanpo geratuko da.

Garbitzaile-Erregai Hornitzaile lan poltsan dauden hautagaiek lanpostu hori betetzeko eskubidea izango dute langile behar ez iraunkorrak, premiazkoak eta gerora ezin daudenean, baldin eta salbuespeneko kasuak badira, eta betiere aldi baterako kontratuak egingo dira.

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badiu, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urterako izango da, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik aurrera kontatuta.

Hala ere, arrazoi operatiboengatik, gehienez beste urte batez luza liteke lan poltsaren iraupena.

Nolanahi ere, lan poltsa berria osatzen denean, hau indargabetuta geldituko da. Hauxe da, lan poltsa hau ordezkatzeko DTKk hautaketa prozesu berria deitzen duenean, hautaketa prozesu berrian izena eman beharko dute oraingo lan poltsan dauden pertsonak, poltsa honetatik eratorritako deiei erantzun dietenean izan ezik; kasu horretan, ez dira berriro aurkeztu beharko, eta lehentasuna izango dute eratzten den lan poltsa berriarekiko.

Osatutako Lan Poltsan egoteagatik Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.U.n lanean hasten diren pertsonak 2 hilabeteko probaldia izango dute. Probaldiak irauten duen bitartean, langileak nahiz Enpresak probaldia bertan behera uzteko edo ez berritzeko erabakia hartu ahal izango dute alde zuzenetik jakinarazi gabe, eta aldeetako bakar batek ere ez du horregatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango, lan egindako egunengatik dagokion ordainsaria besterik ez du jasoko langileak. Denbora horretan zehar enpresak langileen ebaluazio jarraitua egingo du. Donostiako Tranbia

Konpainia, S.A.U.k une bakoitzean indarrean dituen arauak beteko dituzte pertsonak, kontratazioaren eta lanaren balorazioaren alorretan, besteak beste, kasu bakoitzean edozein izanda ere kontratazio modalitatea.

Laugarren.- Barne Sustapeneko Garbitzaile-Erregai Hornitzailearen Lan-Poltsaren kausan, Lan Poltsan sartzeari, osatzeari eta kudeatzeari dagokionean, Deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak beteko dira, eta besteak beste, oinarri horiek xedatzen dute **barne sustapeneko txandan gai kalifikazioa duten hautagaiek lehentasuna izango dutela kanpoko deialdien txandako hautagaien aurretik.**

Bosgarren.- Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. onargarriak diren hautagaiekin harremanetan jarriko da osasun azterketa egiteko, inkorporazioak egin ahala.

Prozesu honetan egiazkoa ez den informazioa aurkezten bada, automatikoki Lan Poltsatik kanpo utz liteke hautagaia.

Stua.: Langileak Hautatzeko Batzordea
Donostia, 2024ko maiatzak 20

1.ERANSKINA:
Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala Fasearen behin-betiko emaitza.

KANPO DEIALDIA

HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA	PUNTUAZIOA (gutxienez 13/25 puntuetatik)
LRE-301	EZ DA GUTXIENeko PUNTUAZIOra IRISTEN
LRE-302	18,75
LRE-304	13,00
LRE-305	21,25
LRE-306	17,50
LRE-307	13,00
LRE-312	20,00
LRE-314	13,00
LRE-317	20,00
LRE-325	21,25
LRE-328	18,75
LRE-331	18,75
LRE-334	EZ AURKEZTUA
LRE-335	18,75
LRE-336	EZ DA GUTXIENeko PUNTUAZIOra IRISTEN
LRE-337	20,00
LRE-344	EZ DA GUTXIENeko PUNTUAZIOra IRISTEN

BARNE SUSTAPENA

HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA	PUNTUAZIOA (gutxienez 13/25 puntuetatik)
LRI24-401	20,00
LRI24-402	22,50
LRI24-403	20,00

2.ERANSKINA: Merituen Balorazioaren eta Euskara Egiaztatzearen behin- betiko emaitza.

KANPO DEIALDIA

<u>HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA</u>	<u>ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA</u>	<u>GIDABAIMENAREN PUNTUEN BALORAZIOA</u>	<u>EGIAZTATUTAKO EUSKARA MAILA</u> 1. HE (edo baliokidea) = 5 puntu
LRE-301	0,80	3,00	0,00
LRE-302	1,15	3,00	5,00
LRE-304	0,00	3,00	0,00
LRE-305	0,45	3,00	5,00
LRE-306	0,00	2,00	0,00
LRE-307	0,20	3,00	5,00
LRE-312	0,00	3,00	5,00
LRE-314	0,68	2,00	5,00
LRE-317	0,56	3,00	0,00
LRE-325	0,00	0,00	0,00
LRE-328	1,55	3,00	5,00
LRE-331	0,00	2,00	5,00
LRE-334	EZ AURKEZTUA	EZ AURKEZTUA	---
LRE-335	0,00	3,00	5,00
LRE-336	0,04	3,00	5,00
LRE-337	0,12	0,00	0,00
LRE-344	0,21	0,00	0,00

BARNE SUSTAPENA

<u>HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA</u>	<u>ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA</u>	<u>GIDABAIMENAREN PUNTUEN BALORAZIOA</u>	<u>EGIAZTATUTAKO EUSKARA MAILA</u> 1. HE (edo baliokidea) = 5 puntu
LRI24-401	0,91	0,00	0,00
LRI24-402	6,62	3,00	5,00
LRI24-403	0,16	1,00	5,00

3. ERANSKINA: Behin-betiko Azken Kalifikazioa.

KANPO DEIALDIA

HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA	AZKEN KALIFIKAZIOA (GUZTIRA)
LRE-302	87,15
LRE-304	70,90
LRE-305	96,48
LRE-306	75,30
LRE-307	77,70
LRE-312	84,25
LRE-314	76,41
LRE-317	81,19
LRE-325	87,85
LRE-328	91,60
LRE-331	87,78
LRE-335	87,50
LRE-337	76,75

BARNE SUSTAPENA

HAUTAGAIAREN IDENTIFIKAZIO KODEA	AZKEN KALIFIKAZIOA (GUZTIRA)
LR124-401	79,18
LR124-402	97,20
LR124-403	91,49